



Olabide Ikastola. Telf. 945150640. Posta saila 571. 01080 Viktoria-Gasteiz. e-mail: [posta@olabide.com](mailto:posta@olabide.com)

# GUERE GAUZAK 24

Ikastolako aldizkaria 2004ko ekaina

## 40. URTEURRENA AZKEN TXANPA

Ikastolaren 40. urteurreneko ikasturtearen azken txanpan gaude; ikasturteak izan ditu une gogoangarriak, besteak beste, Benito Lertxundiren kantaldia, Euskararen Mundu Eguna, Gure ikastolaren historiari buruzko erakusketa, Etxenikeren hitzaldia, Agate Deuna, Eguen Zuri, Aita Raimundo Olabideren jaiotzaren urteurrena, Danborrada, gure ikasleen lanen erakusketa, ElBren Olinpiadak eta Olabide Eguna. Ekainaren 23an, San Joan bezperan, sutea egingo dugu Foruen plazan, eta jarduera horrekin amaituko dira aurtengo ospakizun ekitaldiak.

Ekitaldi asko izan da, baina, hala ere, ez dugu alde batera utzi gure zereginik behinena: ikasleak hazi eta heztea Olabide Ikastolaren proiektuaren oinarri diren balio eta printzipioekin bat etorrita. Lan hori ez da, agian, horren erraz ikusten, baina ezinbestekoa da gure herrialdearen eta familien etorkizunerako.

Bada, izan ere, nahikoa arrazoi ikasturtearen ibilbidearekin gogobeteta egoteko. Lan erritmoa ikaragarria izan da, baina ikastola osatzen duten talde guztiek -gurasoek, langileek eta ikasleek- egin dute lan gogotik, bai eta lan -talde eta ekitaldietan parte hartu ere; horri esker, ilusioz beteriko traineru hau azken txanpara iristea lortu dugu. ZORIONAK GUZTIO!!

Saia zaitezte oporrak ahalik eta ondoen pasatzen, hartu ondo merezitako atsedena, eta 50. urteurrena arte!!

*Estamos dando las últimas paladas de este intenso curso en el que han resaltado sobre todo las distintas celebraciones del 40 aniversario: El concierto de Benito Lertxundi, la celebración del Día mundial del Euskara, la Exposición sobre la historia de nuestra ikastola, la conferencia de Etxenike, Santa Ageda, Jueves de Lardero, la conmemoración del nacimiento del P. Raimundo Olabide, la Tamborrada, la Exposición de los trabajos de nuestro alumnado, las Olimpiadas de ElB y Olabide eguna. El día 23 de junio, víspera de San Juan daremos el cierre a este prolífico año de conmemoraciones, con una hoguera en la plaza de los Fueros.*

*Además de ello hemos trabajado igual que todos los años para sacar adelante nuestra actividad principal: enseñar y educar a nuestros alumnos y alumnas en los valores y principios que animan el proyecto de Olabide ikastola. Una labor no tan visible cara al exterior pero trascendental para el futuro de nuestras familias y nuestro País.*

*Hay motivos para estar satisfechos de cómo ha ido el curso. El ritmo de trabajo ha sido intensísimo pero la actitud, la entrega y la participación de todos los colectivos de la ikastola, padres, trabajadores y alumnado han hecho posible llevar hasta la meta esta trainera cargada de ilusión. ZORIONAK GUZTIO!!*

*¡Que disfrutéis como merecéis de las vacaciones, descansad y hasta el 50 aniversario!*



## OLABIDE EGUNA ETA I OLINPIADAK

Ekaina ailegatu da, baita eguzkia ere, eta honekin batera, aurten berezia izan den Olabide Eguna, egun esanguratsu honekin bat egin baitute EIB-k antolatutako I Olinpiadak. Olabideak, aurtengo anfitrioiak, eta gonbidatuek (Lauro, Lauaxeta, Artxandape, Txomin Agirre, Mariaren Lagundia, Ekintza eta Begoñazpi) larunbatetik igandera arte disfrutatzeko aukera izan dute honetaz giro ezin hobean.

Larunbatean goiz goizetik hasi ziren kirol ezberdinetako lehiaketak (futbola, saskibaloia, pilota, mahai tenisa, etab.). Lehenengo finalak eta sari banaketa krosaren ondoren etorri ziren. Partehartzaileek izugarri ondo pasatu zuten, eguraldiaz disfrutatuz. Gose edota egarri zirenentzat Batxiler lehenengo mailako ikasleek txoznak antolatuta zituzten.

Igandean, eguraldi ederra mantendu eta jai giroa handitu zen. Kirol txapelketak errepikaturik eta Kultur Elkarateak antolatutako zenbait ekintza ikusteko aukera izan zuten Olabidera hurbildu ziren guztiek.

Eguna amaitu eta honekin atsedena hartzeko garaia. Datorren urtera arte!!!



## "GU ERE ARTISTAK"

40.urteurrena dela eta Ikastolako ikasleek plastika alorrean egin duten lan bikaina erakutsi nahi izan dute. Hori dela eta, maiatzaren 24tik ekainaren 3 arte, Hegoalde Gizarte Etxean, ikusgai izan dira, Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak







## KIROL ELKARTEA

### EIBren I OLINPIADAK

Guztiok jakingo duzueenez, ekainaren 5ean eta 6an Olabiden EIBren I Olinpiadak izan genituen. Arrakasta itzela izan zen, gure instalakuntzetan asteburu bero horretan batu egin ziren EIBren ikastola ezberdinetako 600 bat kirolariek, benetako kirol festa batetaz gozatzeko aukera izan baitzuten.

Hauet lehen Olinpiadak besterik ez dira izan, baina hurrengoan prestaketak dagoeneko martxan daude, hemendik bi urtera Lauaxeta Ikastolak EIBren II Olinpiaden antolaketaren ardura hartuko baitu.

### HAINBAT TXAPELKETA

Olabideko infantil futbol taldeak (argazkian agertzen dena) Aste Santuan Valentziaraino joan zitzaigun Valentzia Cup futbol txapelketa jokatzera eta hemendik Olabideko talde guztiei holako esperientzia batetaz gozatzera animatzen diegu, bertan egondako guztiak (mutilak zein gurasoak) errepikatzeko gogoekin geratu baitira eta horrek bere zeresana izango du.

Bestalde, aipatu behar ere Olabideko 4 ikasle (Jokin eta Iker Barrutia, Asier Aizpurua eta Iker Aizpuru) Sevillan egongo den Umbro Kopa jokatzeko sailkatu egin direla Gasteizen ospatu egin aurretiko faseko irabazleak suertatu eta gero, eta beste 12 ikasle ekainaren 5ean Iruñan egon zirela Sunny 3x3 saskibalo txapelketaren fase finala jokatzeko, hauek ere, Arabako txapelketa irabazi eta gero.

### I OLIMPIADAS DE EIB

*Como ya sabréis todos, el 5 y 6 de junio se celebraron en Olabide las I Olimpiadas de EIB. Fue un éxito rotundo, pues fueron alrededor de 600 deportistas de las diferentes Ikastolas de EIB los que tuvieron la posibilidad de disfrutar en nuestras instalaciones de una auténtica fiesta deportiva durante ese caluroso fin de semana.*

*Éstas no han sido más que las primeras Olimpiadas, pero hay que decir que ya están en marcha los preparativos para las siguientes, pues Lauaxeta tomará la responsabilidad de organizar las II Olimpiadas de EIB dentro de dos años.*

### OTROS CAMPEONATOS

*Por otra parte, destacar también que el equipo infantil de fútbol de Olabide (el que aparece en la foto) se nos fue en Semana Santa hasta Valencia a disputar el torneo de fútbol Valencia Cup. Desde aquí, animamos a todos los equipos de Olabide a realizar experiencias de este estilo, ya que todos los que allí estuvieron (tanto los chicos como los padres) se han quedado con ganas de repetir y eso algo querrá decir.*

*Por otra parte, hay que destacar también que 4 alumnos de Olabide (Jokin e Iker Barrutia, Asier Aizpurua e Iker Aizpuru) se han clasificado para disputar la Copa Umbro que se celebrará en Sevilla tras haber resultado vencedores de la fase previa de Vitoria y que, otros 12 alumnos/as estuvieron el 5 de junio en Pamplona disputando la fase final del campeonato de baloncesto 3x3, éstos también después de vencer el campeonato de Álava.*



# KULTUR ELKARTEA

## KANTU TXAPELKETA

Urtero bezala, Euskal Herriko Kantu Txapelketa ospatu da eta aurten gazte eta helduei txanda iritsi zaie. Maiatzaren 30ean gure Ikastolako hainbat kantari Laudiora hurbildu ziren bikote eta talde bezala Arabako finalaurrean parte hartzeko.

Bertan gure Ikastolako partaideek 2 sari eraman zituzten eta honekin batera Euskal Herriko finalera joateko aukera. Hauek izan ziren gure irabazleak:  
INGUMA taldea ("Pasayan xexenak")  
KATTI PZ. DE HEREDIA ETA DEIANE ABAJOS ("Zu galdua")

Bi hauek, ekainaren 19an, Donostiako Kursalen ospatuko den Euskal Herriko finalera joango gara eta...  
HOBERENAK IRABAZ DEZALA!! ZORTE ON NESKAK!!

*Como todos los años se ha celebrado el Concurso de la Canción Vasca. Este año les ha tocado el turno a los jóvenes y adultos. El pasado 30 de mayo varios cantores/as de nuestra Ikastola se acercaron a Llodio para participar como dúo o grupo en la semifinal de Alava.*

*Allí, varios/as de nuestros/as alumnos/as se llevaron 2 premios y con ello la oportunidad de participar en la Final de Euskal Herria. Estos fueron nuestras ganadoras:*

*Grupo INGUMA ("Pasayan xexenak")  
KATTI PZ. DE HEREDIA Y DEIANE ABAJOS ("Zu galdua")*

*Así el 19 de junio iremos a San Sebastián a la final de Euskal Herria que se celebrará en el Kursaal y...  
¡QUE GANE EL MEJOR! ¡MUCHA SUERTE CHICAS!*



Hiruhilabete honetan, lan ta lan ibili gara Kultur Elkartean eta oraindik zertxobait geratzen zaigu:

Ekainaren 19an Dulantzín Arabako Dantzari Eguna ospatuko dugu.

Ekainaren 25, 26 eta 27an gure abesbatzak Vallseko, Tarragona, "Cors Alegres" abesbatzarekin elkartruke bat egingo du eta biek elkarrekin Dendaraban kontzertu bat eskeiniko digute.

Horretaz gain eta ikusi zenuten bezala, gure haur guztiek ekitaldi txikitxoak eskeini zizkizueten Ikastolako Egunean.

Beraz, oporrak merezi ditugula uste dugu baina lasai, hurrengo urtean zuekin egongo gara berriro.

*En este trimestre, hemos tenido un montón de actuaciones en la Asociación Cultural y todavía nos quedan un par de ellas que os contamos por si queréis venir:*

*El 19 de junio, celebraremos en Alegría el Día del Dantzari Alavés.*

*Los días 25, 26 y 27 de junio nuestro coro va a realizar un intercambio con el coro "Cors Alegres" de Valls (Tarragona) y ofrecerán un concierto común en Dendaraba.*

*Aparte de todo esto y como ya pudisteis comprobar el pasado 6 de junio, todos/as nuestros/as chavales/as ofrecieron pequeñas actuaciones el Día de la Ikastola.*

*Así que creemos que tenemos merecidas unas buenas vacaciones pero el próximo año volveremos otra vez con las pilas puestas.*

GG



**HURRENGO EKITALDIA;  
SAN JUAN SUA (ekainaren 23an  
20:30ean Foruen Plazan).  
UDA ETA OPORREI HASIERA  
EMATEKO 40. URTEURRENAREN  
AMAIERA BIKAINA!!!**

**LASTER ARTE!!!**